

Bizkaiko Foru Aldundiaren erabakia zertarako eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean lankidetzeta-hitzarmena onesteko, hizkuntza-gaikuntzaren eta -normalizazioaren alorrean.

Bizkaiko Foru Aldundiak 2021/04/13(e)an onetsitakoa (gai-zerrendatik 17. gaia). Foru erabakiaren proposamena (EKE: UDBX3AK65JSC4WOL).

Erabaki proposamena, zertarako eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean lankidetzeta-hitzarmena onesteko, hizkuntza-gaikuntzaren eta -normalizazioaren alorrean.

Acuerdo para la aprobación del Convenio de Colaboración a suscribir entre el Instituto Vasco de Administración Pública y la Diputación Foral de Bizkaia en materia de capacitación y normalización lingüística.

Aprobado por la Diputación Foral de Bizkaia el 13/04/2021, asunto 17 del orden del día, Propuesta de Acuerdo foral con CVE UDBX3AK65JSC4WOL.

Propuesta de acuerdo para la aprobación del Convenio de Colaboración a suscribir entre el Instituto Vasco de Administración Pública y la Diputación Foral de Bizkaia en materia de capacitación y normalización lingüística.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ERABAKI-PROPOSAMENA; ERABAKI HONEN BIDEZ, LANKIDETZA-HITZARMEN HAU ONESTEN DA: HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA, HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA ETA NORMALIZAZIOAREN ARLOAN IZENPETZEKO.

PROPUESTA DE ACUERDO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA POR EL QUE SE APRUEBA EL CONVENIO DE COLABORACIÓN A SUSCRIBIR ENTRE EL INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA EN MATERIA DE CAPACITACIÓN Y NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA.

Andre agurgarria:

Ilma. Sra.:

Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren bitartez, hainbat ekintza eta programa antolatu eta sustatzen ditu euskara sustatzeko; horri begira, hainbat xedapenetan, eta, batez ere, Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) ezarritako gidalerroei jarraitzen die; izan ere, plan hori Eusko Jaurlaritzak onetsi zuen 2012an eta 2013an, eta Eusko Legebiltzarrak 2013an.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren oraingo Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikia. Uztailaren 27ko 16/1983 Legeak IVAPen egiturari eta zereginei buruzko alderdi esanguratsuak zehazten ditu.

Hitzarmen honen bidez finkatu nahi da zein nolako harreman juridikoa izango duten Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak beren artean, Ogasun eta Herri administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduan ezarritakoetatik aplikagarriak direnei dagokionez. Agindu horren bidez arautzen da Herri arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua.

Honako jardute-esparruak izango dira:

La Diputación Foral de Bizkaia, a través del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, organiza y promueve diversas acciones y programas de promoción del euskera siguiendo las directrices establecidas en diversas disposiciones y, principalmente, en el Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP), aprobado por el Gobierno Vasco en 2012 y 2013 y por el Parlamento Vasco en 2013.

El Instituto Vasco de Administración Pública es un organismo autónomo adscrito al actual Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco, cuya creación, estructura y funciones se establecen en la Ley de 16/1983, de 27 de julio.

El presente Convenio tiene por objeto formalizar la relación jurídica que vinculará al Instituto Vasco de Administración Pública con la Diputación Foral de Bizkaia en relación con las previsiones aplicables de la Orden de 30 de noviembre de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula el servicio de capacitación lingüística que el Instituto Vasco de Administración Pública ofertará a los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Los ámbitos de actuación son los siguientes:



- Euskara-ikastaroak antolatzea: euskalduntze/alfabetatzeko eta 4. hizkuntza-eskakizunari dagokion hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak.
- Terminologia juridiko-administratiboa.
- Euskarazko administrazio-materiala prestatu eta erabiltzea.

Abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileak onetsi zuen Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina; bada, foru dekretu arauemaile horren bosgarren xedapen gehigarriko lehenengo puntuak adierazten duenez, Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-erakunde autonomiadunek, helburua edozein delarik ere, lankidetzaz hitzarmenak egin ahal izango dituzte nazioarteko zuzenbide publikoko erakundeekin, Estatuko Administrazio Orokorrarekin, Gizarte Segurantzarekin, autonomia-erkidegoekin, toki-erakundeekin, dagozkion erakunde autonomiadunekin, sozietate publikoekin eta, izaera juridikoa edozein dutela ere, helburua gizarte zerbitzuen arloa duten erakundeekin.

Horrenbestez, hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak onesten duen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, haren edukia kontuan hartuta. Izan ere, lege horretako 6.1 artikuluan adierazten denez, lege horren eremutik kanpo geratzen dira lege honetan edo arau administratibo berezietan araututa dauden kontratuen edukian sartzen ez den edukia duten hitzarmenak, honako hauek elkarren artean egindakoak badira: Estatuko Administrazio Orokorra, Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak, unibertsitate publikoak, erakunde autonomoak eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak, toki-entitateak, haien mendekoak diren nortasun juridiko publikoko erakundeak eta nortasun juridiko pribatua duten erakundeak, baldin eta, azken kasu horretan, botere adjudikatzailearen

- Organización de cursos de euskaldunización/alfabetización y formación lingüística para el PL4.
- Terminología jurídico-administrativa.
- Elaboración y uso de materiales administrativos en euskera.

Tal y como señala la Disposición Adicional Quinta Uno del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, la Diputación Foral de Bizkaia y sus Organismos Autónomos Forales podrán celebrar convenios de colaboración cualquiera que sea su objeto, con entidades de derecho internacional público, la Administración General del Estado, la Seguridad Social, las Comunidades Autónomas, las entidades locales, los correspondientes organismos autónomos, las sociedades públicas, así como con las entidades que, independientemente de su naturaleza jurídica, tengan como objeto el ámbito de los servicios sociales.

En este sentido, este Convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.1, quedan excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios, cuyo contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales celebrados entre sí por la Administración General del Estado, las Entidades Gestoras y los Servicios Comunes de la Seguridad Social, las Universidades Públicas, las Comunidades Autónomas y las Ciudades Autónomas de Ceuta y Melilla, las Entidades locales, las entidades con personalidad jurídico pública de ellas dependientes y las entidades con personalidad jurídico privada, siempre que, en este último caso, tengan la condición de poder adjudicador.



izaera badute.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17., 39. eta 66. artikulua ikusirik, eta Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onetsi zuen abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuaren arabera berezko zaizkion eginkizunak aintzat hartuta, eta erabiliz Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorren testu bategina onartzen duen 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileko bosgarren xedapen gehigarriak eta harekin bat datozenek emandako ahalmenak, behean sinatzen duen teknikariak erabaki-proposamen hau aurkezten dizu, bidezkotzat jotzen baduzu, Bizkaiko Foru Aldundiak aztertu dezan eta, hala badagokio, onetsi dezan.

Por todo ello, y vistos los artículos 17, 39 y 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y de las funciones que le son propias a tenor del Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, y en uso de las facultades conferidas en virtud de la Disposición Adicional Quinta y concordantes del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, el Técnico que suscribe eleva a V.I., en el sentido de que si lo estima pertinente someta a la consideración de la Diputación Foral de Bizkaia, para su estudio y aprobación, si procede, la siguiente propuesta de

ERABAKIA

Lehenengoa.- Lankidetzeta-hitzarmena onartzea, HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREKIN (IFZ Q2040001F); hitzarmen hori eranskinean ageri da, eta beraren helburua, berriz, hau da: 2021-2024 epealdian bi erakundeen arteko elkarlanaren oinarriak ezartzea.

Bigarrena.- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari berariaz baimena ematea, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta hura ordezkatzuz, lankidetzeta-hitzarmena formalizatzeko agiriak sina ditzan.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEARI eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara

ACUERDO

Primero.- Aprobar el convenio de colaboración con el INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA (NIF Q2040001F), convenio que aparece en el Anexo y tiene como objeto establecer las bases de colaboración entre las dos instituciones en el período 2021-2024.

Segundo.- Autorizar expresamente a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para que en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia firme los documentos de formalización del convenio de colaboración.

Tercero.- Notificar este acuerdo al INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA y al Servicio de Euskera del Departamento de



Zerbitzuari.

Laugarrena.- Hitzarmen hau Bizkaiko Batzar Nagusiei aurkeztu behar zaie, haiek berrets dezaten, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak 7. artikuluko 2.b).3 apartatuan xedatutakoaren arabera.

Euskera, Cultura y Deporte.

Cuarto.- Someter a ratificación de las Juntas Generales de Bizkaia la aprobación del presente Convenio conforme a lo establecido en el artículo 7.2.b)3º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

LANKIDETZA-HITZARMENA, HERRI
ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN
ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKOA,
HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA ETA
NORMALIZAZIOAREN ARLOAN IZENPETZEKOA.

CONVENIO DE COLABORACIÓN A
SUSCRIBIR ENTRE EL INSTITUTO VASCO DE
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y LA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA EN
MATERIA DE CAPACITACIÓN Y
NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA.

n, 2021eko ren (e)(a)n

En , a de de 2021.

PARTE HARTZEN DUTE:

Alde batetik, Maite Iruretagoiena Ibarguren andreak,
Herri Ardulararitzaren Euskal Erakundeko zuzendari eta
ordezkari gisa, eta

Bestetik, Lorea Bilbao Ibarra andreak, Bizkaiko Foru
Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatu
eta ordezkari gisa,

ADIERAZI DUTE:

I.- 10/1982 Legeak (Euskararen Erabilpena
Arauzkatzeko Oinarrizko Legeak) aitortzen du herritar
orok eskubidea duela euskara nahiz gaztelania
erabiltzeko herri-administrazioarekiko harremanetan,
eta, ondorioz, administrazioari agintzen dio eskubide
hori gauza dezan.

II.- 6/1989 Legeak (Euskal Funtzio Publikoari buruzko
Legeak), hizkuntza-normalizazioari buruzko tituluan,
10/1982 Legean ezarritako printzipio eta tresnak
biltzen ditu. Legeak, halaber, hizkuntza-eskakizunaren
figura sortzen du; horrela, aurrerantzean, Euskal
Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako
lanpostuak betetzeko prozesuetan eta, oro har,
hautaketa-prozesuetan, irizpide objektiboak izango dira
euskara-maila baloratzeko.

III.- Urriaren 16ko 200/2012 Dekretuak (Herri
Ardulararitzaren Euskal Erakundearen egitura eta

REUNIDOS

De una parte, la Dña. Maite Iruretagoiena
Ibarguren como Directora del Instituto Vasco de
Administración Pública y en representación del
mismo, y

De la otra, Dña. Lorea Bilbao Ibarra como
Diputada de Euskera, Cultura y Deporte de la
Diputación Foral de Bizkaia y en representación
de la misma,

MANIFIESTAN:

I.- La Ley 10/1982, Básica de Normalización del
Uso del Euskera, reconoce el derecho de toda la
ciudadanía a usar, tanto el euskera como el
castellano, en sus relaciones con la
Administración Pública y el correlativo deber de
ésta de hacer efectivo tal derecho.

II.- La Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca,
en el título especialmente dedicado a la
normalización lingüística, recoge los principios e
instrumentos establecidos en la Ley 10/1982
anteriormente mencionada y arbitra la figura del
perfil lingüístico como criterio objetivador de la
valoración del euskera en los procesos de
selección y provisión de puestos de trabajo en las
Administraciones Públicas de la Comunidad
Autónoma Vasca.

III.- El Decreto 200/2012, de 16 de octubre, por
el que se regula la estructura y funciones del

eginkizunak arautzen dituenak) 16.1 artikuluan ezartzen duenez, Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzuaren ardura da euskararen erabileraren normalizazioa sustatzea, horretarako, langileak euskaraz lan egiteko gaituz, edo langileen euskarazko ezagutzak ebaluatuz, lanpostuek duten hizkuntza-eskakizuna kontuan izanda. Hori guztia egiteko, ondorengo lanak burutuko ditu:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileak hizkuntza arloan gaitzeko prozesua diseinatu eta antolatzea, dela lanpostuek jarrita duten hizkuntza-eskakizunari dagokion maila lortzeko, dela lanpostuan ele bitan lan egiteko gauza izateko ere.

- Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko beharrezkoa den euskararen ezagutza ebaluatzea, funtzio publikoko legerian ezarritako baldintzen arabera.

- Administrazio-hizkera aztertu eta horren berri hedatzea, eta berariazko prestakuntza, laguntzarako materialak eta hizkuntza-baliabideak diseinatzea, lanpostuan ele bitan jardun ahal izatea errazteko.

IV.- Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak) testu bakar batean biltzen ditu euskararen administrazio-erabilerari buruzko hainbat xedapen, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza-prozesuaren antolamenduari buruz Eusko Jaurlaritzak zenbait dekretutan emandako xedapenak.

V.- Bizkaiko Foru Aldundiak onartuta dauka hizkuntza-normalizaziorako plana, beti ere apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen du).

Instituto Vasco de Administración Pública, establece en su artículo 16.1 que el Servicio de Capacitación y Normalización Lingüística es la unidad responsable de impulsar la normalización del uso del euskera mediante la capacitación lingüística y la evaluación del conocimiento de euskera en referencia a los perfiles lingüísticos asignados a los puestos de trabajo, todo ello mediante:

- El diseño y la organización de la capacitación lingüística de los empleados de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, orientada tanto a la obtención de los perfiles lingüísticos asignados a los puestos de trabajo, como al desempeño bilingüe del puesto de trabajo.

- La evaluación del conocimiento de euskera necesario para la acreditación de los perfiles lingüísticos, en los términos establecidos en la legislación de función pública.

- El estudio y difusión del lenguaje administrativo y el diseño de formación específica, materiales de apoyo y recursos lingüísticos que faciliten el desempeño bilingüe del puesto de trabajo.

IV.- El Decreto 86/1997 de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, viene a agrupar en un texto único y regularizar, aclarar y armonizar las disposiciones contenidas en los diferentes Decretos del Gobierno Vasco dictados en materia de ordenación del proceso de planificación de la normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

V.- La Diputación Foral de Bizkaia tiene aprobado su plan de normalización lingüística, conforme a lo establecido en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en

VI.- Hori guztia ikusita, Bizkaiko Foru Aldundiak Herri Ardularitzaren Euskal erakundearen lankidetzaz eskatzen du indarrean dauden xedapenen arabera bete behar dituen hizkuntza-helburuak lortzeko.

Horregatik guztiagatik, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak erabaki dute lankidetzaz aritzea azken erakunde horren hizkuntza-normalizazioko lanetan. Horretarako, hitzarmen hau adostu dute, ondoko printzipioak eta jarduteko ildoak abiapuntu dituela.

HITZARMENAREN HELBURUA

Lehenengoa.- Hitzarmen honen bidez finkatu nahi da zein nolako harreman juridikoa izango duten Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak beren artean, Ogasun eta Herri administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduan ezarritakoetatik aplikagarriak direnei dagokionez. Agindu horren bidez arautzen da Herri ardularitzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua.

Bigarrena.- Aurreko klausula horrek aipatzen duen harreman juridikoa honako jardute-esparruak izango ditu:

- Euskara-ikastaroak antolatzea: euskalduntze/alfabetatzeko eta 4. hizkuntza-eskakizunari dagokion hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak.
- Terminologia juridiko-administratiboa.
- Euskarazko administrazio-materiala prestatu eta erabiltzea

las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

VI.- Que en vista de todo ello, la Diputación Foral de Bizkaia solicita la colaboración del Instituto Vasco de Administración Pública, en orden al logro de los objetivos lingüísticos que ha de cumplir de acuerdo con lo establecido en las disposiciones normativas vigentes.

Por todo ello, el Instituto Vasco de Administración Pública y la Diputación Foral de Bizkaia acuerdan colaborar en las labores de normalización lingüística de este Ente Público estableciendo el presente convenio que se desarrollará de acuerdo con los siguientes principios y líneas de actuación.

OBJETO DEL CONVENIO

Primera.- El presente Convenio tiene por objeto formalizar la relación jurídica que vinculará al Instituto Vasco de Administración Pública con la Diputación Foral de Bizkaia en relación con las previsiones aplicables de la Orden de 30 de noviembre de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula el servicio de capacitación lingüística que el Instituto Vasco de Administración Pública ofertará a los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Segunda.- La relación jurídica a la que se refiere la cláusula anterior se proyectará a los siguientes ámbitos de actuación:

- Organización de cursos de euskaldunización/alfabetización y formación lingüística para el PL4.
- Terminología jurídico-administrativa.
- Elaboración y uso de materiales administrativos en euskera.

EUSKALDUNTZE/ALFABETATZEKO ETA 4. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEKO HIZKUNTZA- PRESTAKUNTZAKO IKASTAROAK

Hirugarrena.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiaren esku jartzen ditu Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren I. kapituluan jasotako hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuak. Agindu horren bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen toki-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak.

Laugarrena.– Langile bakoitzak Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren seigarren artikuluaen 3. paragrafoan ezarritako parametroen arabera zehaztutako ordu-kreditua izango du. Agindu horren bidez arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua.

Bosgarrena.– Alderdi biek ezagutzen dituzte datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dauden arauak, eta hitz ematen dute bete egingo dituztela.

Seigarrena.– Bizkaiko Foru Aldundiak, hitzarmen hau izenpetzearen ondorioz, onartu egiten ditu Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduko hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuak jaso ahal izateko baldintzak. Agindu horren bidez arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua.

CURSOS DE EUSKALDUNIZACIÓN/ALFABETIZACIÓN Y FORMACIÓN LINGÜÍSTICA PARA EL PERFIL LINGÜÍSTICO 4

Tercera.– El Instituto Vasco de Administración Pública pone a disposición de la Diputación Foral de Bizkaia los servicios de capacitación lingüística previstos en el Capítulo I de la Orden de 30 de noviembre de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula el servicio de capacitación lingüística que el Instituto Vasco de Administración Pública ofertará a los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Cuarta.– Los créditos horarios que correspondan a cada persona empleada se establecerán en función de los parámetros previstos en el punto 3 del artículo sexto de la Orden de 30 de noviembre de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula el servicio de capacitación lingüística que el Instituto Vasco de Administración Pública ofertará a los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Quinta.– Ambas partes conocen y se comprometen a cumplir las previsiones relativas a la protección de datos de carácter personal recogidas en toda la normativa aplicable en esta materia.

Sexta.– La suscripción del presente convenio por parte de la Diputación Foral de Bizkaia supone la aceptación de las condiciones de prestación de los servicios de capacitación lingüística previstas en la Orden de 30 de noviembre de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula el servicio de capacitación lingüística que el Instituto Vasco de Administración Pública ofertará a los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

TERMINOLOGIA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA

Zazpigarrena.- Administrazio-hizkera finkatzeko eskumena IVAPi dagokiola-eta, erakunde horrek terminologia-bankuak, glosarioak eta bestelako terminologiako lan-tresnak eskainiko dizkio Bizkaiko Foru Aldundiari.

Bizkaiko Foru Aldundiak, IVAPek hala eskatzen dionean, bere eguneroko kudeaketan ohikoak diren administrazio-agirietan erabiltzen diren termino eta unitate lexikalak aurkeztuko ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiak, idazten dituen administrazio-agirietan, IVAPek bere terminologia-bankuetan eta glosarioetan onartutako terminologia juridiko-administratiboa erabiliko du.

EUSKARAZKO ADMINISTRAZIO-MATERIALAK PRESTATU ETA ERABILTZEA

Zortzigarrena.- Bizkaiko Foru Aldundiak, HAE Erekin elkarlanean, behar diren maiztasun-azterketak egingo ditu bere agirietan, eta, horrela, herri-erakunde horrek gehien erabiltzen dituen administrazio-agiri eta -espedienteak zein diren zehaztuko da. Ekimen horren bidez jakingo da zein idazki diren herritarren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko idatzizko harremanetan premia handiena dutenak euskara aldetik egokitzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak administrazio-agirien egokitzapenean antzematen dituen behar orokor eta zehatzak jakinarazi ahal izango dizkio HAE Eri; horrelakoetan, bada, hizkuntza aldetik egokitzeko hautatu diren administrazio-agiri zehatzak eskuratuko dizkio. HAE Eek, berriz, administrazio-idazki horien ereduak prestatuko ditu, eta Bizkaiko Foru Aldundiari bidaliko aztertu eta balora ditzan.

Administrazio-idazkien behin betiko proposamen guztiak, diren aurreko lerroaldean aipatutako bidez egindakoak nahiz HAE Eek bere kabuz egindakoak,

TERMINOLOGÍA JURÍDICO- ADMINISTRATIVA

Séptima.- Dado que la competencia relativa a la fijación del lenguaje administrativo reside en el IVAP, este organismo ofrecerá a la Diputación Foral de Bizkaia bancos terminológicos, glosarios y otras herramientas de trabajo del ámbito de la terminología.

La Diputación Foral de Bizkaia, a solicitud del IVAP, aportará los términos y unidades léxicas que estén siendo utilizados en los documentos administrativos de uso común en su gestión diaria.

En los escritos administrativos que elabore, la Diputación Foral de Bizkaia utilizará la terminología jurídico-administrativa aprobada por el IVAP en sus bancos terminológicos y glosarios.

ELABORACIÓN Y USO DE MATERIALES ADMINISTRATIVOS EN EUSKERA

Octava.- La Diputación Foral de Bizkaia en colaboración con el IVAP, podrá determinar cuáles son los documentos y expedientes administrativos de uso más general en ese Ente Público, a fin de decidir qué escritos administrativos son los que requieren, con mayor urgencia, su adecuación lingüística para la relación escrita en euskera entre los ciudadanos y la Diputación Foral de Bizkaia.

La Diputación Foral de Bizkaia podrá transmitir al IVAP las necesidades generales y puntuales que observe en relación con la adecuación de la documentación administrativa y, en ese caso, aportará los materiales concretos de documentación administrativa que se hayan elegido como objetos de adecuación lingüística. El IVAP elaborará modelos prototipo de estos escritos administrativos y los remitirá a la Diputación Foral de Bizkaia para su revisión y valoración.

Todas las propuestas definitivas de escritos administrativos que se elaboren, bien por la vía señalada en el párrafo anterior, o bien a iniciativa

lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzen duten herri-erakunde guztiei igorriko zaizkie.

del propio IVAP, serán remitidas a todas las administraciones firmantes del presente convenio de colaboración.

KLAUSULA OROKORRAK

Bederatzigarrena.- Hitzarmen honek, sinatuz gero, aurreko lankidetzeta-hitzarmena ordezkatu du, dena delako herri-erakundeak hizkuntza-prestakuntzaren eta -normalizazioaren arloan HAEErekin sinatuta leukakeen hitzarmena, esan nahi da.

Hamargarrena.- Hitzarmena berau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, beronen ondorioak 2020ko urriaren 2tik aurrera sortuko badira ere. Hitzarmenaren indarraldia 2024ko urriaren 2an amaituko da, aldeetako batek ez badu berariaz adierazten bertan behera utzi nahi duela.

Hamaikagarrena.- Hitzarmen hau bertan behera uzteko nahia adieraz lezake aldeetako edozeinek, bere aldetik, eta, hala eginez gero, bermatu egin beharko da hasitako jarduerak amaitu egingo direla. Nahi hori adierazi eta handik hiru hilabetetara amaituko da hitzarmenaren indarraldia.

Eta adostasun frogatzat, alde biek sinatzen dute hitzarmen hau.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / Diputada
Foral de Euskera, Cultura y Deporte

Lorea BILBAO IBARRA

CLÁUSULAS GENERALES

Novena.- La suscripción de este convenio, a partir de la fecha de su firma, sustituirá al anterior convenio de colaboración que, en su caso, el Ente hubiera suscrito con el IVAP en materia de capacitación y normalización lingüística.

Décima.- El presente convenio entrará en vigor el día de su firma, si bien sus efectos se producirán desde el 2 de octubre de 2020, extendiendo su vigencia hasta el 2 de octubre de 2024, salvo que alguna de las partes manifieste expresamente su voluntad de dejarlo sin efecto.

Undécima.- El presente Convenio podrá ser denunciado unilateralmente por cualquiera de las partes contratantes, debiendo garantizarse, en tal caso, la finalización de las actividades ya iniciadas. El Convenio finalizará su vigencia a los tres meses de comunicarse por escrito tal determinación.

Y en prueba de conformidad ambas partes firman el presente Convenio.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea/
Instituto Vasco de Administración Pública
Zuzendaria / Directora

Maite IRURETAGOIENA IBARGUREN